

## AURKEZPENA

2007. urtean abian jarritako krisialdi ekonomi-finantzarioa garrantzi handiko lan- nahiz gizarte-ondorioak eragiten ari da. Hala ere, langabeziak mundu mailan jasan duen hazkunde izugarria ez da ezabatuko suspertze ekonomiko lotsatiaren eta ziurgabearen bidez, ezpada hori urte batzuk gehiago luzatuko da. Gainera, ziurrenik ere, ezinezkoa izango da aurreko enplegu mailak berreskuratzea. Horrez gain, depresio ekonomikoan murgiltzea saihesteko finantza-erakundeen nahiz bestelako sektoreen salbamendurako erabilitako egundoko baliabide publikoen ondorioz, instantzia ezberdinak jadanik erreklamatzeko duten bezala, gizarte-gastua murrizteko presioa eragingo da. Aldi berean, eta neurri handi batean eragile berdinek, enplegua sortzeko beharrezana dela bide, lan-merkatuak arautu gabe geratu eta malgutzera bultzatzeko eskaera egin da. Krisialdiaren gaur egun eta etorkizuneko lan-ondorioen larritasun eta garrantzi hori dela medio, gure aldizkarian aipatu beharreko gaia izan da.

Lehenengo bi artikuluetan krisialdiaren azterketa ekonomikoa egin da. Michel Husson-en artikuluan, krisialdiaren sustraiak eta izaera aztertuko dira, baita kapitalismoaren gaur egungo fasearen kontraesanak eta kontraesan horiek gainditzea ahalbidetzen duten aukerak ere. Kapitalaren eta lanaren arteko diru-sarriaren banaketa krisialditik irteteko banaketa funtzionala izan badaiteke ere, eta aldi berean, ekoizpena eta banaketa gizarte-beharrizanak asebetetzera berriro zuzendu badaitezke ere, egilearen ustez, ezinezkoa da «keynesianismo-fordismo»ra itzultzea. Horrenbestez, kapitalismoaren berehalako proiektua erdua abian jartzeko baldintzak modu eskusiboan berriro ezartzea da. Halaber, Mertxe Larrañagaren eta Yolanda Jubetoren lanaren xedea krisialdiaren -jatorriei eta ondorei —iraunkortzat jotakoei— buruzko hausnarketa egitea da, bai eta gobernuak hartutako neurriei buruzkoa ere, betiere gizonen eta emakumeen enpleguei eta lanei buruzko ondorio desberdinen ikuspegitik, eta amaitzeko, berdintasuna, bereziki, lan-eremuan bultzatzeko proposamena egingo dute.

Hurrengo bi artikuluetan eremu juridikoa jorratuko da. Horietako lehenengoan, Jose Luis Monereo jaunak adierazi duenez, gaur egungo krisialdia, neurri handi batean, Gizarteak Merkatuari begira duen mendekotasunaren ondorioa da, hau da, arrazionaltasun instrumental hutsaren logikari begira. Bada, »berregituraketa» eta »lan-malgutasuna»ren politikak (hemen Lan Harremanak aldiz-

kariaren 16. zenbakian Antonio Fernandezekin batera jadanik egindako azterketarekin aurrera eginda) modu kritikoa eta zehaztasunez azaldu ostean, Gizarte Estatuaren politika propioak berreskuratzeko beharrezana nabarmendu du, bai Europako mailan bai Nazio mailan, krisialdiaren kostuek talderik ahulenen gain izan ditzaketen eraginak saihestu ditzaten. Bigarrenean Javier Echaide jaunak aldizkari honen (19. zk.) aurreko zenbakian landutako nazioz gaindiko enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko politiken alderdi bat aztertu du, enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko ISO 26000 arauari buruzko zirriborroen bitartez. Hain zuzen ere, hori 2010. urtean sinatzea aurreikusita dago.

Jarraian, krisialdiak eragindako ondorio anitz eta konplexuen kasuan, Eduardo Apodaka jaunak garrantzi gutxiagotzat jotzen ez diren ondorio psiko-sozialak (herstura, segurtasun-falta...) aztertu ditu. Egile horren aburuz, ondorio horiek elkarri lotuta daude eta kapitalismo *malguaren eta globalitarioaren* ondorioz sortutakoak dira.

Gorka Morenok enpleguaren eta herritarren arteko harremanak eta azken hamarkadetan izandako bilakaera aztertu ditu. Izatez, bere iritziz, enplegua herritarren sarbidea eta eskubideen bermatzailea da, batik bat, gizartearen ikuspegitik, eta harreman horren krisialdiari begira planteatutako erantzunak ere aztertuko ditu. Artikuluan Herritarren Oinarrizko Errentaren proposamena bereziki xehatu da, enpleguaren eta herritarren artean dagoen bereizte gutxi gorabehera partziala proposatuta. Izan ere, bere iritziz, denborazkotasunaren nahiz prekarietatearen hazkundearen eta karrera profesionalen iraupenaren eta malgutasun-erantzunaren murrizketaren ondorioz binomio horri eusteko sortutako zailtasunak eta arazoak gainditu ahal izango dira.

Atal irekian, Imanol Basterretxeak eta Eneka Albizuk, Arrasate Taldearen giza baliabideen zuzendarien artean eremu-lana jorratuta, talde laguntzaile horrek garatutako prestakuntza-politika aztertu dute, hori balio handiko langileak erakarri, garatu eta atxikitzeko abantailazko lehia-iturria den zehazteko helburuarekin. Atal horren bigarren artikuluan, Ricard Calvok eta Ignasiak, Valentiako Erkidegoaren eremuan aribidean dagoen ikerketa abiapuntu hartuta, tokiaren ikuspegitik enpleguaren balorazio kritikoa egin dute, hots, politika horiek bilakaera gutxienekoa eta behar ez bestekoa izan dutela adierazi dute, eta ondorioak lurraldearen gain islatzeko zenbait bereizgarri aurkeztu dituzte.

Bukatzeko, Lan Harremanak aldizkariaren Erredakzio Kontseiluak, jakinarazi nahi du, aldizkari honen kudeaketan aldaketak egitea erabaki duela. Aldaketa hauek pixkanaka egingo dira, eta beste neurri batzuen artean, erabaki da aldizkari bakoitzak duen zenbakia, argitaratzen den datarekin egokitzea, horretarako, hemen duzun ale honek bi zenbaki izango ditu, alegia, 2009ko 20 eta 21.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN  
*Lan Harremanak* aldizkariaren zuzendaria